

UDAL ERAIKINEN GARBITZAILEEN LAN-POLTSA: OINARRIEN AKATS ZUZENKETA

Udal web-orrian argitaratu dira 2019ko uda garaiko eta beste garbiketa-premiei erantzuteko garbitzaileen lan-poltsa osatzeko oinarriak. Deialdi honetako bederatzigarren oinarrian kontraesana dagoela ikusi denez, honela dioen lekuan:

"9.- Lan-poltsa. Kontratazioa - Praktikaldia

Prozesuko baldintzak betetzen dituzten hautagaiekin, udal eraikinen garbitzaileen lan-poltsa osatuko da, eta udalak aldi baterako kontratatzeke dituen premien aurrean bertara joko du.

Alkate-udalburuak dagokien hurrenkeran deituko ditu, eta eskainitako lan-kontratuari uko egiten diona zerrendaren azken tokian jarriko da, edozein dela emandako arrazoia.

Lan-poltsa honek lehentasuna izango du eta aurretik dauden lan-poltsen osagarri izango da, betiere Giza Baliabideen Batzordearen proposamenari jarraituz Alkate-Lehendakariak besterik erabakiko ez balu...."

Honela esan behar du:

"9.- Lan-poltsa. Kontratazioa - Praktikaldia

Prozesuko baldintzak betetzen dituzten hautagaiekin, udal eraikinen garbitzaileen lan-poltsa osatuko da, eta udalak aldi baterako kontratatzeke dituen premien aurrean bertara joko du.

Alkate-udalburuak dagokien hurrenkeran deituko ditu, eta eskainitako lan-kontratuari uko egiten diona zerrendaren azken tokian jarriko da, edozein dela emandako arrazoia.

Lan-poltsa hau aurretik dauden lan-poltsen osagarri izango da, betiere Giza Baliabideen Batzordearen proposamenari jarraituz Alkate-Lehendakariak besterik erabakiko ez balu...."

Bergara, 2019ko ekainaren 12

IDAZKARIAK



The image shows a handwritten signature in black ink over a circular blue official stamp. The stamp contains the text "BERGARAKO UDALA" at the top, "AYUNTAMIENTO DE BERGARA" in the middle, and "SECRETARIA IDAZKARITZA" at the bottom. There are two stars on either side of the bottom text.